

BizkaIdatz XVI
Literatura saria
(2024)

**"JARRAITZEKO PREST?
ORAIN ZURE TXANDA DA"**

*Oinarriak barrualdean

The book cover features a stylized illustration of a woman in a dark blue hijab and a black and blue coat, looking at a smartphone. The background is a dark, atmospheric scene of a stone staircase leading up a hill towards a building with a bell tower, all under a dark sky with rain falling. A small red heart icon with the number '1' is positioned above the title.

EGIZU MATCH

Elena Fernández-Alonso

4 68 11



Elena
Fernández
Alonso

Bidal Mezu Bat

O.H.Oko irakaslegoan diplomatua, eta Hizkuntza eta literatura gradu bat kurtsoan. Zenbait sari jasoa: "Bizkaidatz, esta historia la escribes tú"-2014 lehiaketan lehenengo saria, gaztelaniaz, Euskaraz, bi aipamen: "Gora Gasteiz 2015 contra el racismo" eta "Obxarkoagako Mugarik Gabeko XIV. Haur Ipuinen Lehiaketa 2016"-n finalista. Argitalpenak: "Gosea asetzeko zortzikoa", "Eskerraldeko ipuinak" bilduman. Eleberriak: "Gerezi mingotsak", "Inpostorea" eta "Olatu hilak" (itzulpenak). Jatorrizkoa erderaz.

BizkaIdatz XVI.
Literatura saria

EGIZU *MATCH*

Elena Fernández Alonso

© Elena Fernández Alonso, 2024
© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia.

Antolatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Koordinazioa eta diseinua: Álex Oviedo
Azala: Mikel Apodaka

Lehenengo edizioa: 2024ko ekaina

LG BI 723-2024

Nire urtebetetze egunean bertan adinaren krisiak jota nengoela konturatu nintzen. Bat-batean, amatasuna izurri kutsakor bat bezala hedatu zen nire inguruan, kontrolik gabe. Egun horretan, hamarkada berrirako sarrera ospatzeko plan guztiak pikutara joan ziren. Arazo ezberdinak zeuden baina guztiak nire lagunen seme-alabekin lotuta. Aitzakien artean, alaba urtebetetze festa batera eraman behar izatea; larrialdietara bidaia bat, semeari sukarra ez zitzaiolako jaisten; eta horrela, deprimিতা utzi ninduten beste hainbat arrazoik. Orduan, egoeraren larritasunaz ohartu nintzen.

Lagunekin harremanari eusteko modu bakarra haiekin eta haien seme-alabekin parkean arratsalde pasa egitea zen. Zer edo zer asmatu behar nuen horri buelta emateko, baina familiatik kanpoko jardueren proposamenak bertan behera gelditzen ziren beti. Laburbilduz, ezinezkoa zen gure artean helduen elkarrizketa

bat izatea edo hurrez jositako inguru horietatik kanporatzea. Pixkanaka-pixkanaka urruntzen joan ginen. Noizean behin, kortesiazko dei bat egiten genion elkarri, eta inoiz betetzen ez ziren promesak.

Egia da, elkartzeko saiakera bat baino gehiago egin genuen. Hala ere, ez genuen lortu eta aurrera egin nuen nire kabuz. Zailtasun handiak topatu nituen bidean, ez baitzen erraza izaten antzeko interesak zituen jendearekin bat egitea. Eta hori gutxi zela, parrandaz irteten nintzenean lekuz kanpo sentitzen nintzen, nire adineko jendeak gauzez ibiltzeko eskubidea galdua balu bezala.

Kezka horiek neure lankideekin partekatu nituenean, berehala ulertu ninduten. Leirerekin nuen harreman estuena. Honek enpresako kide ohi batekin hitzordu itsu bat antolatu zidan, niretzat aproposa zen pertsona interesgarri eta umoretsu horrekin. Behin eta berriz esanda, azkenean baietz esan nuen. Arratsalde pasa besterik ez balitz ere, azken asteetako asperdura uxatzeko balioko zuen.

Ostiral horretarako topaketa adostu ondoren, erosketetan joan nintzen pozez gainezka. Denda askotan sartu arren, ez nuen neure burua ezerekin ondo ikusten eta apur bat zapuztuta itzuli

nintzen etxera. Eguna iritsi zenean, eroso sentitu nahian, geratuak ginen tabernara garaiz ailegatu nintzen. Ezin dut jasan ohituraz beti berandu etortzen den jendea. Beraz, pixka bat itxaron nuen, ezbeharren bat gertatu ote zitzaion jakiteko; gero mezu bat bidali nion, eta erantzunik jaso ez nuenez, oso haserre egin nuen alde. Etxera bueltatu nintzen, umorea ozpinduta. Nirekin horrela jolastu zezakeela uste al zuen?

Leireri galdezka deitu nionean, harritu egin zen; arraroa iruditu zitzaion azalpenik eza. Biharamunean, barkamena eskatu zidan jakin zuenean mutila azkenengo unean izutu egin zela. Horrek lelo samar sentiarazi ninduen hurrengo egunetan. Ni, faltsukerien beldurra ligatzeko *appez* fidatzen ez nintzen arren, porrot horren ostean iritziz aldatu nintzen. Orduan, horietako batean profil bat sortzea erabaki nuen, pertsona berriak aurkitzeko leku ona izan zitekelakoan. Dena den, mundu ezezagun horretan sartzearen beldur nintzenez, lankideen babesa bilatu nuen.

—Denek gauza bakarra nahi dute: sexua —esan zuen haietarikoa batek—. Harrapakarien eta pertsona arriskutsuen mundua besterik ez da.

—Ez egin kasurik —luzatu zidan beste batek—. Orokorrean, jende jatorra dago. Agian, gauzarik txarrena, ezagun asko topako dituzula, baina hori kudeatzen ikasi beharko duzu. Beitu, nik neure bikotea horrela ezagutu nuen eta bi urte daramagu elkarrekin.

Horrek lasaitu egin ninduen. Leirek kontatu zidan moduan, lankideen artean *app* horien erabiltzaile bat baino gehiago zegoen, nahiz eta batzuek ukatu. Haietako bat isilean ibili nahi izan arren, profileko argazkian ezagutu zuten. Beste batek laneko batekin match egin zuen; eta beste batzuek gehiegi zekiten *app* horiei buruz. Leire irrikan zebilen niri lagundu nahian; bere iritziaz gain, besteena ezagutu nahi nuen, eta aholkua eskatu nien.

—Argazki faltsu bat argitaratzen badu, ez fidatu —aho bateko erantzuna izan zen—. Eta zintzo jokatu, zuk ere hori eskatzen badiozu beste pertsona horri.

Iritzi guztiak kontuan hartuta, zereginari ekin nion. Arratsalde batean, sofan eserita, aplikazioa jaisteko tarte bat hartu nuen eta neure profileko informazioa ondo biribiltzeko. Bereziki, nire argazki egoki bat aurkitu nahi nuen, lehen zirraren garrantziaz

eta nire izaera ez oso fotogenikoaz jabetuta. Lotsa gainditu ostean, eta lankideen hitzak oraindik gogoan nituela, argazki faltsuak erabiltzea baztertu nuen. Besteengandik zintzotasuna espero banuen, horrela jokatu behar nuen.

App horretan nire profila sortzeko orduan, arretaz aukeratu nituen neure ezaugarriak, zer-nolako irudia erakutsi nahi nuen. Handik aurrera, nire bizitzaren zati bat publiko egingo zen; beraz, datu intimoak niretzat gordeko nituen. Eta azkenik, *app* horren erabilera ondoegi ezagutu gabe, harreman birtualen munduan nabigatzera ausartu nintzen.

Harritu ninduen lehenengo gauza zera izan zen, “*like*” asko jaso nituela neure kontua martxan jarri bezain laster. Hain urduri nengoen, non pantaila ezker-eskuin pasatzen hasi bainintzen, tartean matchak egiten ari nintzela konturatu gabe. Akatsaz jabetu nintzenerako, interesatuen mezu batzuk nituen zain, eta kopuru handiak gaindituta, aukerak zorrozteko iragazki gehiago gehitu nituen. Niretzat hizkuntzak garrantzi handia zeukan; beraz euskara iragazki gisa sartu nuen. Zerrenda zentzuzko kopuru batera murriztu ondoren, errazago egin zitzaidan egoera

kudeatzea. Hala eta guztiz ere, deigarria egin zitzaidan gehienek profilaren antza, gehienek furgoneta zuten eta zaletasunen artean eskalada, eskia eta crossFit-a nabarmentzen ziren.

Egia ote zen? Erantzunak lortzeko joku horrekin aurrera egitea modu bakarra zen.

Ausardia falta gainditu eta interesatuen baheketa egin ondoren, horietako bat aukeratu nuen. Begiratu batean interesgarria zirudien. Handik gutxira neure lehenengo hitzordua izango nuen, ni baino dexentez gazteagoa zen furgonetadun batekin.

Azkenean eguna iritsi zenean, oso urduri jaiki nintzen. Leireren jarrera babesgarriak ez zuen lagundu; aitzitik, nire urduritasuna areagotu zuen. Segurtasun neurriei buruzko aholkuak eman zizkidan, espioi misio batera joango banintz bezala. Hala eta guztiz, kasu egin nion. Leku publiko bat aukeratu nuen, eta Leireri mezu bat bidali nion hitzorduaren lekua eta ordua jakinarazteko. Arratsaldeko zazpietan alde zaharreko taberna ezagun batean. Azkenik, zortzietan deituko zidan dena ondo zihoala ziurtatzeko.

Hasieratik haren estiloa eta orrazteko era gustatu zitzaizkidan eta, kasu honetan behintzat, bere profilean esandako guztia

egia zirudien. Horrek aurrera segitzeko adorea eman zidan, eta garagardo pare bat hartu genuen apur bat elkar ezagutzeko. Laster konturatu nintzen berarekiko elkarrizketak ez ninduela batere asetzen. Handik gutxira, Leireren deia jaso ostean, agur esan nion.

Lehen porrota izan arren, ez nuen etsi eta profil desberdinetako pertsonak bilatu nituen; hau da, ez hain gazteak, ez hain hiztunak, serioagoak, eta halako zerrenda luze bat, haiengandik urruntzera ninderaman akatsen bat aurkitzen nien arte. Bide horrek inora eramango ez ninduela ikusita, amore eman eta appen mundu hori baztertu nuen.

Neguko arratsalde batean paseoan irten nintzen, egurastera. Autoa hartu eta Gaztelugatxe aldera jo nuen, aspaldi haraino hurbildu gabea bainintzen, ideia ona iruditu zitzaidan. Euria azken ordurako iragarrita egon arren, sasoz egongo nintzen bueltan. Gainera, berrehun eta berrogeita bat eskailera maila horiek igo eta jaitsi ostean, ondo lo egingo nuen.

Egia esan, orduak oso arin igaro ziren, eguraldiaren aldaketaz konturatu gabe. Bat-batean, zerua ilundu egin zen, eta indar

handiko haizea zebilenez, ospa egin nuen euri zaparrada saihesteko. Etxerako itzuleran egundoko ekaitzak harrapatu ninduen; euri zaparrada handia bota zuen eta autoaren haizetako-garbigailuak ez ziren aski. Egoera horretan ezinezkoa zen zuzeneko norabidea ikustea. Orduan, GPSaren jarraibideei kasu eginez, eskuinera biratu nuen lehen desbideraketan. Laster okerreko bidetik nindoala konturatu nintzen, baina bidea buelta emateko estuegia zen eta aurrera jarraitu nuen, harik eta gurpil bat putzu batean sartu zen arte, eta kotxea erabat hondatuta gelditu zen.

—Falta nuen bakarra —pentsatu nuen.

Autoa berriz martxan jartzen saiatu nintzen, baina, kontaktua piztu eta azeleragailua sakon zapaldu ostean, gurpilak lokatzetan trabatuta segitzen zuen. Ez nuen lortu.

Motorra itzali nuen autoa erabat itoarazi aurretik. Irtenbide bat lehenbailehen aurkitu behar nuen, egoera gero eta larriagoa bihurtzen ari zelako. Guztiz ilunduta zegoen, eta ni, ekaitzaren pean mendi puntan galduta. Horrek guztiak arazoak besterik ezin zuen ekarri, izoztuta hiltzea barne.

Hotzikara bat sentitu nuen estaldurarik gabe nengoela pentsatze hutsarekin, telefono konpainia merke horietako bat bainuen. Horrela izanez gero, akabo. Dardarka hasi nintzen, eskua poltsan sartu nuen eta segidan mobila atera. Arnasa hartu nuen: estaldurak bi marra zituen.

Kotxeko guantera zabaldu eta aseguruaren paperak atera nituen, mobilaren linternaz lagunduta. Dena oso arin egin nuen bateria barik gelditzeko beldurrez. Arreta zerbitzura deitu nuen hogeita lau orduko zerbitzua eskaintzen zutela jakinda. Erantzungailu batek aukera ezberdinak azaltzen zizkidan bitartean, neure bizitza makina baten eskuetan zegoela konturatu nintzen. Azkenik pertsona batek erantzun zidan.

—Gurpil bat lokatzetan sartuta dago eta ezin dut kotxea atera —azaldu nion bulegariari—. Mesedez, etorri lehenbailehen hotza jasanezina baita.

—Teknikariari emango diot ezbeharraren parte, baina ekaitzak eragindako istripuak direla eta, gure pertsonala topera dabil. Patxadaz hartu beharko duzu, oso lanpeturik daude eta.

—Mesedez, kontuan hartu mendi erdian galduta nagoela, ekaitz

madarikatu baten pean, horrek sorrarazten dituen arriskuekin.

—Bai horixe! Baina zuk ere ulertu behar duzu beste asko daudela zeure egoera berean. Dena den, ahalik eta lasterren egongo dira zurekin.

Hitza eman zidan arren, ez nuen oso kezkatuta ikusi. Ez, ni bezainbeste, behintzat. Pertsona horrentzat, desesperatu bat gehiago besterik ez nintzen. Ez zidan lehentasunik emango. Horrek esan nahi zuen neure kabuz bilatu beharko nuela irtenbide bat, egoera horretatik onik atera nahi banuen. Mota guztietako arriskuak imajinatu nituen. Besteak beste, basurdeak. Inguru horretan lasai asko bizi ziren eta askotan herrietara jaisten ziren janari bila; beraz, ez zen ideia ona ni haien bidearen erdian egotea. Horrez gain, euria egiten horrela jarraituz gero, uholde bat gerta liteke eta urak eramán nintzake.

Lagunei deitzea alferrikako lana zen: ziurrenik oso lanpeturik ibiliko ziren eta nahiago nuen haien aitzakiak ez entzutea. Minduta aterako nintzen. Bestelako ezagunak konpromisoan jarriko nituen. Poliziari deitzea ere bururatu zitzaidan, baina egoera horretan lanpeturik ibiliko ziren. Zer esanik ez, suhiltzaileak

eta babes zibilekoak. Guztiak gainezka ibiliko ziren, eta gainera, garabi falta ere egongo zen, denboralearen eraginez abisu asko egongo baitziren.

Zer edo zer egin behar nuen, egoera larria izaten hasia zelako. Kotxe barruan babestu nintzen zarata arraroak entzun nituelako, eta bat-batean ideia bat izan nuen, arriskutsua bezain burutsua. Alde onak eta txarrak balioetsi ondoren, ez nuen erabakia argi ikusten, baina ez neukan beste irtenbiderik. Abian jarri nintzen. Hilabete neraman aplikazio hori erabili gabe eta ez nekien oraindik martxan ba ote zebilen ala ez. Eskerrak pasahitza gordeta neukala. Nire pozerako, berehala zabaldu zen. Arraro samar sentitu arren, berriro mundu horretan murgiltzeko eta iragana ahazteko prest nengoen.

Aplikazioa zabaldu nuenean, pozik egiaztatu nuen jende berri asko zegoela. Profilak banan-banan aztertu ahala, hurbiltasunari garrantzia ematen nion. Besteetan ez bezala, oraingo honetan berdin zitzaidan hautagaien itxura fisikoa, guapoa edo itsusia bazen; berritsua edo isila bazen; zelako interesak zituen edo bere adina. Ahalik eta hurbilen zegoen norbaiten arreta erakartzea zen

helburua. Etsi-etsian, nire kokalekutik kilometro gutxira agertzen zitzaizkidan guztiei *like* ematen hasi nintzen. Itxaropentsu gelditu nintzen kotxe barruan, baina hotza gero eta biziago nabaritzen nuen.

—Egizu *match!* —esaten nion neure buruari, atzamarrak gurutzatuta.

*Elena Fernandezek ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

XVI. BizkaIdatz 2024 Literatura sariaren oinarri arautzaileak

«Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da»

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, «Esta historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen BizkaIdatz literatura sariaren deialdiaren bidez, helburu nagusizat du bizkaitarren literatur sorkuntza bultzatu eta sustatu nahi du.

PARTE-HARTZAILEENTZAKO BALDINTZAK (onuradunak):

1) Hamasei urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahal izango dira literatura-lehiaketa honetara, baldin eta, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) 12. artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta eduki behar izango dute.

* Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkaritza duten pertsonak aurkeztu beharko dituzte. Sariaren bat irabazten badute, pertsona horiek izango dira jasoko den zenbateko ekonomikoaren onuradunak, ondorio guztietarako, eta ez adingabeak; salbu eta eskabide aurkezteko epean adingabea adin-nagusitasunera iristen bada saria ordaindu aurretik, kasu horretan sariaren onuraduna izango litzateke.

Edonola ere, deialdiaren oinarri arautzaileetan onuradunentzat adierazitako baldintzak adingabeak bete beharko ditu.

2) Gainera, parte hartzen duten pertsona egileek baldintza hauetako bat bete beharko dute, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan jaiok izatea edo, bestela, Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea foru dekretu hau argitaratzen denean

edo foru dekretu hau argitaratu aurretik urtebetez gutxienez Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egon izana.

3) Aurreko bi edizioetan, edozeinetan, lehenengo saria irabazi duen pertsonak saririk jaso ez zuen modalitatean bakarrik parte har dezake aurtengo deialdian (euskaraz edo gaztelaniaz), XVI. Bizkaldatz 2024sarian.

KONTAKIZUNEN BALDINTZAK:

Lehiaketa honetan, gaur egungo idazle batek proposatutako hasiera duen bi istorioetako batekin jarraitzen duten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak

2) Deialdi honetan honako hauek dira parte-hartzaileek jarraitu beharreko kontakizunen hasierako istorioak:

a) Euskarazko atalean, Elena Fernández Alonso idazlearen “EGIZU MATCH” izeneko kontakizunaren hasierako istorioa.

b) Gaztelaniazko atalean, Gonzalo Arranz Ayala idazlearen “LOS PREPARADOS” izeneko kontakizunaren hasierako istorioa.

Literatura-kontakizunaren hasierako istorio biak eskuragarri egongo dira Bizkaiko Foru Aldundiaren goitza elektronikoa eta Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean:

*<https://www.bizkaia.eus/eu/hasiera>
<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>*

3) Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak bi hizkuntza-modalitateetan aurkeztu ahal izango dira, euskaraz eta/edo gaztelaniaz, eta literatura-kontakizun bat baino gehiago aurkeztu ahal izango dute, parte hartzea aukeratzen duten modalitatean edo modalitateetan.

Euskarazko modalitateko kontakizunaren hasierako istorioa aukeratz gero, kontaki-

zunak euskaraz jarraitu behar izango du; eta gaztelaniazko modalitateko kontakizunaren hasierako istorioa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz jarraitu behar izango du.

Lehiaketaren edizio honetan parte hartu duten literatura-kontakizunak baloratzeko erantzukizuna duen epaimahai kalifikatzaileak egokitzen jotzen badu, parte-hartzaile bera bi hizkuntza-modalitateetan irabazle izateko proposatu ahal izango da.

4) Literatura-sari honen urteko deialdiaren helburua kontuan hartuta, zehatzago esanda, bizkaitarren talentua eta literatura-sorkuntza bultzatzea eta sustatzea, parte-hartzaileek lehiaketara aurkezten dituzten literatura-kontakizunek lan originalak izan beharko dute, norberak eta banaka sortutakoak, eta argitaratu gabeak izango dira, ez osorik, ez partzialki. Lan hauek sortzeko erabat dago debekatuta adimen artifizialeko tresnak edo antzeko teknologiak erabiltzea.

5) Narrazioek, gutxienez, 12 orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, gehienez, 15 orrialdekoa. “Times” edo “Arial” letra erabili beharko da, DINA4 tamainako orrietan idatzita. Eta honako ezaugarri hauek gorde behar dituzte: gorputza, 12; espazioa, bikoitza; gutxienez 24 lerro eta gehienez 32 lerro orrialde bakoitzean, eta lerro bakoitzean, gutxienez, 70 karaktere, salbu eta ortografiatzeko zeinu jakin batzuen aplikazioaren emaitzako salbuespenak.

6) Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketek derrigorrez bete behar dute ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoaren araberrako emakumeen eta gizonen berdintasuna.

AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak eta literatura-kontakizunak aurkezteko epea deialdi hau eta oinarri arautzaileak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko irailaren 6an amaituko da, biak barne.

AURKEZTEKO TOKIA:

1. Eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira leku hauetan:

- Erregistro Orokorrean – Bizkaiko Foru Aldundiaren Laguntza Bulegoan (Diputazio kalea 7, 48008 Bilbo, Bizkaiko Foru Liburutegiaren beheko solairua).

Aurrez aurreko arreta aldez aurreko hitzorduarekin ematen da. Hitzordua 944068000 telefonora deituta edo web orri honetako herritarrentzako arreta atalean eska daiteke: <https://www.bizkaia.eus/eu/hasiera>

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bulegotan (beste erregistro publiko batzuk eta posta-bulegoak).

2. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

ESKABIDE-EREDUA ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak eredu ofizialetara egokitu beharko dira. Eredu horiek aipatutako egoitzan bete eta aurkez daitezke: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan (paperezko formatuan aurkeztutako eskabideak), eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta webgunearen bidez eskuragarri: <https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Parte-hartzaileak idatzitako literatura-kontakizunaren ale bat (obraren alea ez da sinatu behar; zenbakia jarrita izango du orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar du; ez, ordea, egileaten identifikazio-daturik).

- Eskabidea ordezkari bidez aurkeztuz gero (nolanahi ere, kontakizunaren egilea adingabea den eskaeretan), ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

DATU ETA DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIAK:

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilia, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek pertsona interesdunei, haien ordezkarietara eta, hala badagokio, saria ordaintzeko izapideak egin baino lehen adin nagusitasunera iristen den adingabeari buruz dituzten datuak, deialdi honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, salbu eta berariaz aurka egiten badiote. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira, hori guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikulua babesean.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun-datuak.

Eskatzaileak uko egiten badiot administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, egoitza elektronikoan edo webgunean eskuragarri dagoen eredu ofizialaren bitartez: <https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

b) Zerga-betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoko erroldatuta dagoen udalerria.

Deialdi hau argitaratzen den egunean Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren baten erroldatuta ez dauden baina aurretik erroldatuta egon ziren pertsonen zein udalerritan erroldatuta egon ziren adierazi beharko dute.

Nolanahi ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera

jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA:

Sariak emateko, deialdi honetarako izendatutako epaimahai kalifikatzaile batek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako kontakizunak, eta epaimahai horrek egingo du kontakizun irabazleen proposamena, honako irizpide hauen arabera:

- Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu gehienez.

- Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.

- Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu gehienez.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak izendatuko du epaimahai kalifikatzailearen osaera, foru agindu bidez, eta agindu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

SARIAK:

Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie gaztelaniaz aurkezturikoetan:

- Lehenengo saria, euskaraz: 2.000 euro eta diploma.

- Lehenengo saria, gaztelaniaz: 2.000 euro eta diploma.

- Bigarren saria, euskaraz: 750 euro eta diploma.

- Bigarren saria, gaztelaniaz: 750 euro eta diploma.

- Hirugarren saria, euskaraz: 250 euro eta diploma.
- Hirugarren saria, gaztelaniaz: 250 euro eta diploma.

Aurreko atalean agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat.

Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunek ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak behin betiko ebazpena emango du, sarien banaketa jasoz, epaimahai kalifikatzailearen ebazpen-proposamenaren arabera, eta parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

Lan irabazleak, kontakizunen hasierako bi istorioekin batera, ondore horretarako egingo den edizio batean argitaratuko dira, paperezko bertsioan zein bertsio digitalean, eta bertsio digitala Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean argitaratuko da:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

Idazleek, literatura-sari honetan parte hartuz, aipatutako edizioa argitaratzeko eta zabaltzeko baimena ematen dute, baina horrek ez du ekarriko ordainsari ekonomikorik jasotzeko eskubiderik.

JABETZA INTELEKTUALA:

Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak ustiatzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria ordainsari osoa eta bakarra baita. Egileek ados egon beharko dute ondorio horietarako, baldintza hauen arabera:

a) Saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak denbora-mugarik gabe eta lurralde-mugarik gabe lagatzea. Lanak aipatutako azken edizioan argitaratuko

dira, gaur egungo zein etorkizuneko edozein merkaturatze-sistema, edizio-modalitate eta euskarri erabiliz.

Lagapen hori Bizkaiko Foru Aldundiarentzat bakarrik izango da, sari-banaketaren ekitaldi ofiziala egin eta hurrengo bost urteetarako.

b) Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena ematea, bere kabuz edo hautatzen duen argitalpen-zerbitzu publiko edo pribatu batekin hitzartuta, egoki iritzitako behar beste argitaraldi egiteko, eta argitaraldi bakoitzean nahi duen ale-kopurua argitaratu ahal izango du.

c) Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena ematea kontakizunak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, eta jatorrizko hizkuntzan egindako kontakizunak ustiatu eta erabiltzeko eskubide berberak izango ditu.

SARIDUNEN BETEBEHARRAK:

1) Saridunek eurek joan beharko dute sariak banaketako ekitaldira, edo ordezkari baten bidez, ezinezkoa bazaie. Ekitaldi horren berri emango zaie behar bezala.

2) Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: “Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia”.

3) Nolanahi ere, saridunak beti bete beharko ditu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak, eta arau honen garatzeko erregelamenduan xedatutakoa (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua).

AHOLKULARITZA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko du, deialdi honi buruzko sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko.

Horretarako, honako webgunean eskura daiteke:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndare>

Deialdi honen oinarri arautzaileak eskuragarri daude Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eta Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean:

*<https://www.bizkaia.eus/eu/hasiera>
<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>*

Parte-hartzaileek oso-osorik errespetatu eta bete beharko dituzte lehiaketaren oinarri arautzaileak.

Oinarriren bat betetzen ez bada, aurkeztutako eskabidea edo eskabideak ezetsi egingo dira.

